



Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 20a / 509. zenbakia




Historia aztergai

Udal Agiritegiaren eskutik, Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldi sorta irailaren 24tik aurrera



KAZETAGUNEA: IRIZAR JAUREGIAN JARRIKO DUTE/5 • BERGARA KE: LIBURU AURKEZPENA DOMEKAN/10



Udazk. Negua 02/03

CRISTINA

Arruriaga z/g BERGARA
943 76 03 04

- Levi's
- Lois
- Caroche
- Yerse
- Fransa
- Ichabod

Eta orain, baita ere:
BANANA MOON
BIG-STAR



ARMAZOIRIK
GABEKO
BETAURREKOAK

49 €
TIK HASITA

MODELO DESBERDIN UGARI,
PREZIO BAKARRA



BONARDI
ARMAZOIAK

25 €

MULTIOPTICAS

beti zurekin



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11


ATREBENTZIAEZPADA/ Badaukazu asmo berririk kurtso berrirako? Ikastaroren bat egin...



ARAITZ OJANGUREN
16 urte



LAURA BREÑA
29 urte



IÑAKI LAZPIUR
52 urte



BERNARDINO ANTÓN
54 urte



JOSE MARÍA MUÑOZ
56 urte



MARI KARMEN DÍAZ
29 urte

Momentuz ez. Aurreko urteko gauza berdiñekin jarraituko dot. Bueno, gauza bat bai aldatu dot; jun zan urtian Ipintzan nenbillen eta aurten Miguel Altunan hasi naiz.

Ez daukat asmo berririk. Jun zan urtian moduan jarraituko dot. Ez dot aparteko ezer egingo. Dana dala, aerobika egitten dot, baiña hori aurreko urtietan be egitten neban.

Orain, BKEko zuzendari-tza laga egingo dot, eta, horrez aparte, ez daukat beste ezer egiteko asmorik. Ehiza denboran ehizara jun, baiña, horrez aparte, trankil egon nahi dot.

Ez daukat asmo berririk. Lan egin, hori besterik ez. Lanetik kanpo, pasiatzia gustatzen jat, eta gero lagunekin txikito batzuk hartzia. Bizimodu lasaixa egittia gustatzen jat.

Neri bizitza lasaixa gustatzen jat. Jubilauta nago, eta ahal dotenian, behintzat, kanpora jutia gustatzen jat. Eta Donostiara edo Bilbora egun-pasa jutia be gustatzen jat.

Ez dot ezer berririk egingo. Gaiñera, hain daukat ordu-tegi txarra, ezin dot ezertan izenik emon. Lanak ez dost aukerarik lagatzen. Baiña gustora egingo neuke aerobika.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZAKARRONTZIAK APURTUTA Asteburuaren ondoren, Errotalde parkeko bi zakarrontziak apurtuta daudela ikusi ahal izan dugu; eta, jakina, zabor guztia lurrera erorita zegoen. Badirudi hainbatek beste zeregin hoberik ez zuela eta horrelako entretenimenduetan eman zuela denbora. Ez da izango, ba, San Martinak izanik kalean ondo pasatzeko girorik ez zegoelako. /M.B.

ETABARRUAN...

- | | | |
|--|---|--|
| ASTEKO BERRIAK / 6 | KIROLAK / 11 | KULTURA / 12 |
| Gripearen aurka, txertoa | BKEk presidentea izendatu du | Euskal Herriko historia |
| Urriaren 31ra arte izango da kanpaina. Anbulatori-
oan, Osintxun eta Labegaraietan ja-
rriko dute txertoa. | Iñaki San José izango da Bergara KEko presidentea. Futbol Saila zuzendaritza barik zegoen uztailetik. | Udal Agiritegiak Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldi sorta antolatu du; lehen-
a, hilaren 24an. |

ASTEKO DATUA

11.351

SAN ANTONIOTIK IGAROTZEN DIREN IBILGAILUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepideetako Departamentuak egindako neurketaren arabera, iaz, 11.351 ibilgailu igaro ziren, batez bete, san Antonioko bidegurutzetik.

BESTEKE SANA

“ Irabazten denean dena da polita, Zaragozaren aurka galdu ondoren, berriz, badirudi azken hiru urte-etako egoerara itzuli garela, eta ez da horrela. Kopakoa gogorra izan arren, hasieran gaude eta oraindik ezin da azterketa zehatzik egin”.

AGUSTIN ARANTZABAL
‘Euskaldunon Egunkaria’/02-09-13

“ Zapatuan engainua egon zen. Inori ez zitzaion debekuaz abisatu, eta oso tarte txikia egon zen

Ibarretxeren kontseilari batek martxa baimendu zuenetik Ertzaintzaren pilotakadak hasi ziren arte”.

MARTIN GARITANO
Gara/02-09-18

BERAIEK DIÑOE/ Iñaki Gabilondo



Amnistiaren kondaira

Negarrari eutsi ezinik dago Ortzadar. Koloreak kendu dizkiote eta zuri beltzean ezin du irribarrerik egin. Ortzadar bere amorrua laino artean hedatzen saiatzen da ilargiaren zain, baina Ilargiak ez etortzea erabaki du. Ez behintzat Ortzadarren koloreak nork lapurtu dituen jakin arte. Eguzkia eta Euria bere indar guztiekin saiatzen dira; lehenak poltsan dauzkan izpi guztiak jaurti ditu ekialdetik mendebaldera, bigarrenak aldiz Eguzkitik ahal duen bezain gertuen kokatzen du bere negarra. Guztiak ari dira konspiratzen Ortzadarrek bere koloreak berreskura ditzan. Bitartean lurra gero eta grisago gelditzen ari da, kolorerik gabe.

Ilargia lurraren inguruko planetak nola dauden ikustera abiatu da. Martitzetik gertu dagoenean, hura ere gero eta grisago dagoela ikusi du, atzera begiratu eta lurraren itxura lotsagarria kausitu du.

“Ordainduko du hau egin duenak” pentsatu du bere artean hortzak estuturik. Martitzera iristear dagoela amerikarrek bertan kokatu duten base militarrekin egin du topo. Bertan sekulako jaiak daukatela ikusi du, munduko gobernariak Errege Magoekin ari dira dantzatzen eta gurutze batean lotuak Ortzadarren kolore guztiak ikusi ditu, baita martitzereantzat dauzkanak ere. Laster batean Olentzerori deitu eta borrokaldi gogor baten ondoren Olentzerok eta Ilargiak koloreak berreskuratzea lortu dute. Martitzeri bereak ematera joan da Ilargia eta bitartean Olentzerok Arrasatera abiatu da, bertan izango baita asteburuan Askatasuna. Heldu denean Askatasunari koloreak eman dizkio. Askatasunaren bihotza taupadaka hasi da eta Askatasun Taupada bakoitzak kolore bat bueltatu dio. Ortzadarrari eta poliki, baina pausarik gabe, bere irribarrea txirrista bezala erabiliz Amnistia etorri da.

“... poliki, baina pausarik gabe, Ortzadarren irribarrea txirrista bezala erabiliz Amnistia etorri da”

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 20**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 21**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- DOMEKA, 22**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 23**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 24**
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 25**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUENA, 26**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Anglozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaltzatea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaltzatea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--------------------------------------|---------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta | Zapatuak: |
| lanegunak: 19:00. | 20:00. |
| Sierbak | Angiozar |
| Lanegunak: 19:15. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 11:30. |
| Domekak: 11:30, | Moja |
| 13:00. | Zaharrak |
| Osintxu | Lanegunak: 9:00. |
| Domekak: 12:30. | Zapatuak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | Mizpirualde |
| Elosu | Lanegunak: 11:45. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak: 17:30. |
| Ubera | Antzuola |
| Domekak: | Domekak: |
| 10:30. | 09:00, 11:30. |
| San Juan | Zapatuak eta |
| Domekak: 11:00. | lanegunak: 19:30. |
| Elorregi | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| URTE-MEZAK | |
| Santa Marina | |
| Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean. | |
| San Pedro | |
| Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean. | |

OHARRAK

- 1948AN JAIOTAKOAK**
1948an jaiotako enafaria, hilaren 28an, Txuringon. Joan-etorria egiteko autobusa egongo da. Izenematea, Euskadiko Kutxan (41 euro).
- ODOL ATERATZEA 25EAN**
Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, hurrengo odol ateratzea hilaren 25ean egingo dute, 18:30ean, Seminarioan, errelebuka lanean ari direnek odola emateko aukera izateko.

SAN MARTINETAKO ZOZKETA
Xamatx dantza taldeak eta Aritzeta abesbatzak joan den zapatuko harri afarian egindako zozketan ondoko zenbakiak izan dira sari-tuak: 1.694, 2.194, 1.408, 465 eta 1.513. Txartelen jabeek Giokelak baimendutako harategietan 30 euroko erosketa-txartel bana jasoko dute.

BEART-EN IKASTAROA
Beart herriko artisten elkarteak 6 eta 15 urte bitarteko gaztetxoendako Margo ikastaroa antolatuko du, urritik aurrera. Eskolak zapatuetan izango dira, 10:00etatik 13:00etara, Beartek Bolun duen egoitzan. Izenematea eta argibideak 653 71 53 82 (Mayra) edo 615 75 60 19 (Oihana) zenbakietan.

JARDUNENAGENDA

TRIKITI ESKOLA, ABIAN
Jardunen Trikiti Eskolak urriaren lehen emango dio hasiera ikasturteari. Soinu eskolak martitzenetan, eguaztenetan eta zapatuetan izango dira eta pandero eskolak astelehenetan eta eguenetan. Izenematea eta argibideak Jardunen, Errotalden, edo 943 76 36 61 telefono zenbakian.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Tavex taldea Marokon bakeroak egiten

Tavex taldeak 1991ko ekainean zabaldu zuen Settavex lantegia Marokon, Settat herrian. 1993an, hango zuzendaritza taldeko hiru kide elkarriketatu genituen, Pedro Aiastui bergararra tartean. Sasoi hartan, 30 milioi praka bakero egiten zituzten urtean Settavex lantegian.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Istantza"



Iluntzean ia ilundurik dagoeneko tarte hori. Egunaren eta gauaren arteko muga. Ilunabarra.
-Atzo istantzian uso bandara galantak pasau zaien.
-Istantzerarte ibilli lanian da, artu otarra, ta etxera aguro, laga afaixai tta.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 13	8 °C
MAXIMOA Astelehena, 16	29 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 11	24 °C	12 °C	- l/m²
Eguena, 12	24 °C	10 °C	- l/m²
Egubakoitza, 13	24 °C	8 °C	- l/m²
Zapatua, 14	29 °C	10 °C	- l/m²
Domeka, 15	28 °C	13 °C	- l/m²
Astelehena, 16	29 °C	14 °C	0,4 l/m²
Martitzena, 17	28 °C	14 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

'MEN IN BLACK 2'

ZUZENDARIA: BARRY SONNENFELD. AKTO-REAK: WILL SMITH, TOMMY LEE JONES.

HARIA. Efektu berezi ikusgarritz jositako komedia, lehen zatia- ren arrakastari eutsi nahirik. K eta J agenteak estralurtarrekiko harremanak bideratzen saiatuko dira berriro ere.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean 22:30ean; zapa- tuan, 17:00etan, 19:30ean, 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean eta astele- henean 19:30ean (ik. eguna).

PUNTAZIOA: ● ● ● ● ●



INFERNUKUA TABERNA
Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

Zuri Beltz margoak
Barnealde eta kanpoaldean erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

INTERNET/ Yoga ikastaroak ematen diren gelan jarriko dute. Horretarako, yoga eskolak nora eraman erabakitzen ari da Udala

Irizar jauregiko 2. solairuan jarriko dute Interneten erabilera sustatzeko KZGunea

MONIKA BELASTEGI

Laster izango da martxan Bergaran ere KZGunea. Dagoeneko Udalak aurkitu du ordenagailu zentro hori kokatzeko egoitza: Irizar jauregiko bigarren solairua, hain justu ere. Zentroak Interneten erabilera orokorra sustatzea du helburu.

Abenduan hasi ziren zabaltzen Euskal Autonomia Erkidegoan KZGuneak. Oraingoz hirurogeitik gora jarri dituzte, eta laster Bergaran ere izango da. Udalak Irizar jauregian jartzea erabaki du, bigarren solairuan, gaur egun yoga ikastaroak ematen dituzten gelan. Hori dela eta, lehenengo, yoga ikastaroendako egoitza berria aurkitu behar dute, eta gela hutsik geratu ondoren hasiko dira KZGunea jartzeko beharrezko lanak egiten. Zentroaren funtzionamenduaren gaineko gorabeherak ere aurrerago zehaztuko dituzte.

INTERNETEN ERABILERA SUSTATZEKO

KZGuneak Eusko Jaurlaritzak abian jarritako programa baten zati dira; Euskadi Informazio Gizartearen programa, hain justu ere. Programa horren helburua da Euskadiko biztanleak teknologia berriekin trebatzen laguntzea. Eta helburu hori lortzeko, hiru oinarri ditu programak. Lehenengoa Konekta Zaitetz izan



MONIKA BELASTEGI

KZGunea Irizar jauregiko bigarren solairuan jarriko dute, gaur egun yoga ikastaroak ematen diren gelan.

zen, informatika-ekipoak erosteko dirulaguntzak.

Bigarrena KZGuneak dira, Interneteko prestakuntza eta erabilera eskuratzeko doako zentroak, eta horixe da, hain justu, Irizar jauregian jarriko dutena.

Izan ere, egitasmoaren ardura Eusko Jaurlaritzak duen arren, proiektuarekin bat egiten duten udalek KZGunea kokatzeko egoitza egokia eskaintzeko konpromisoa hartu dute, Bergarako Udala tartean dela.

HERRITAR GUZTIEI ZUZENDUTA

KZGunea zentroa Internet zerden eta zertarako balio duen ikasteko doako zentroa da. Horretarako hainbat ordenagailu egongo dira gune horretan, baita ize-na ematen dutenei laguntzeko

tutoreak ere. Finean, zentroen helburua da herritar guztiei Interneten erabilera ezagutzera ematea, eta bereziki teknologia berrietatik urrun daudenei, tartean, etxekoandreei, erretiratuei eta iraupen luzeko langabeei.

Bergaran 18.000 ibilgailu inguru dabil egunero

MONIKA BELASTEGI

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak Gipuzkoako errepideetan izandako zirkulazio neurketak kaleratu ditu orain dela gutxi. Bergarari dagokionez, zirkulazio gehien jasotzen duten lau puntu aipatzen ditu txosten horrek.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak egin duen neurketak 2001. urteko datuak jasotzen ditu. Bergarako errepideei dagokionez, bi errepide aipatzen ditu txostenak: GI-627, hau da, Gasteiz eta Eibar lotzen dituen errepidea, eta GI-632, Beasain-Durango errepidea.

Gasteiz eta Eibar lotzen dituen GI-627 errepideari dagokionez, lau puntutan egindako neurketak jasotzen ditu txostenak Bergarari dagokionez: lehenengoa Elorregiri dagokio, eta Diputazioaren neurketen arabera egune-



ARTXIBOA

Bergarako sarrera-itteerako errepideetan, batez beste, 13.000 ibilgailu ibili ziren iaz.

ro, batez beste, 18.858 ibilgailu igaro ziren handik 2001. urtean; hurrengo neurketa Zaldumendi inguruan egingo dago, Bergara

hegoaldean, eta han 16.456 ibilgailu zenbatu zituzten; horrez gain, Zaldumendin saihebidetara jarraitu beharrean Labegaraie-

ta aldera egiten duten ibilgailuen kopurua ere ematen du txostenak: 3.536, hain justu ere; azkenik, Bergara iparraldea

aipatzen du txostenak, hau da, Eibartik Bergarako sarrera, eta hantxe 14.004 ibilgailu zenbatu zituzten iaz.

Horrez guztiaz gain, ibilgailu kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan. Bergarako iparraldearen eta hegoaldearen kasuan, 1994ko datuei begiratuz gero, aldea nabarmena da; gaur egun, 7.000 auto inguru gehiago pasatzen dira handik.

BEASAIN-DURANGO

GI-632 errepideari dagokionez, Beasain eta Durango lotzen dituen, hain justu, San Antonioko sarrera (Bergarako ekialdea) aipatzen du Foru Aldundiaren neurketak. Iaz, egunero, 11.351 ibilgailu pasatu ziren San Antoniotik. Eta horixe da ekialdeko saihebidetara erakitzeko arrazoietako bat, Aldundiaren arabera. Lanak ia bukatuta daude, eta irailaren 27an inauguratuko dute, seguruena. Aldundiaren esanetan, San Antonioko zirkulazioaren %60 bereganatuko du.



ARTXIBOA

Teknologia aurreratuko gelarako materialean 75.000 eurotako inbertsioa egin du Miguel Altuna institutuak.

HEZKUNTZA/ Teknologia berrietara egokitzeko beste urrats bat eman nahi izan dute

Teknologia aurreratuko gela, Miguel Altunako berritasuna

MONIKA BELASTEGI

Hamaika ordenagailu, pantaila digitala eta bideokamera bat ditu Miguel Altuna institutuak datorren astean inauguratuko duen gelak. Bideokonferentzia bidez beste ikastetxe batzuekin jarduteko aukera izango dute. EAEn beste 9k horrelako gela jarriko dute martxan.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eragina irakaskuntzan ere nabari da. Informazioaren eta komunikazioaren arloak aurrera doaz etengabe, eta Miguel Altuna institutuak ez du atzean geratu nahi izan. Errealitate horretaz jabetu, eta teknologia aurreratuko gela jarriko dute martxan.

Gelak 11 ordenadore, kamara bat eta eta pantaila digitala izango ditu. Material guztia Miguel

Altunak dago eta datorren aste-rako erabiltzeko prest izango da.

Material horrekin ahotsa, irudiak eta datuak transmititu ahal izango dira bideokonferentzia erabiliz Lanbide Heziketako beste zentro batzuetara, eta horixe da, gela berriaren helburuetako bat; informazioa eta esperientzia trukatu ahal izatea Lanbide Heziketako beste ikastetxe batzuekin.

Gainera, Bergarakoaz gain, EAEko beste bederatziz zentrok

Datorren astean inauguratuko dute eta Jaurlearitzako ordezkariak izango dira ekitaldian

ere jarriko dute martxan teknologia aurreratuko gela, eta informazioa trukatu ahal izateko EAEko Lanbide Heziketako zentroek martxan duten intranet-a (barruko sarea) erabiliko dute.

IRAKASTEKO BESTE MODU BAT

Eskolen arteko informazio trukeaz gain, intraneteen dagoen materiala erabiltzeko aukera ere eskainiko die gela berriak irakasle eta ikasleei, eta hainbat eskola ordu bertan izango dira.

Gela datorren astean inauguratuko dute, eta ekitaldian Anjeles Izutueta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza sailburua, Jorge Arevalo Lanbide Heziketako sailburuordea eta Inaki Mugika Lanbide Heziketako zuzendaria izango dira. Bergarakoarekin batera, beste 9 zentroetako gelak ere inauguratuko dituzte bideokonferentzia bidez.

LABUR

Gripearen aurkako kanpaina martxan dago eta urriaren 31ra arte iraungo du

Hiru tokitan jarriko dituzte txertoak: Anbulatorioan, astelehenetik egubakoitzera, aurrez ordua hartuta (txanda hartzeko 14:00etatik 17:00etara deitzea komeni da); Osintxun, irailaren 24an, 12:00etatik 13:30era, eta Labegarietako polikiroldegian, irailaren 26an, 12:00etatik 13:00etara.

Honako pertsoneri gomendatzen zaie txertoa hartzea: 65 urtetik gorakoei eta ondorengo patologia dituzten 65 urtetik beherakoei: bronkitis kronikoa, kardiopatia, diabete gozoa, giltzurruneko edo gibekeko gutxiegitasuna eta inmunodeprimidoak.

Urriaren 2ra arte zabalik Jardun elkartaren bertso-eskoletan izena emateko epea

Izena emateko Jardunen egoitzara joan beharko da -kultura etxe-ko sotoa- edo 943 760819 eta 943 763661 telefonoetara deitu, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Eskolak urriaren 2leko astean hasiko dira. Hala ere, aurreko astean, hau da, 14tik 18rako astean izena eman duten guztiak bilerak bat egingo dute egutegi eta ordutegi egokiak zehazteko eta taldeak egiteko.

Bestalde, gaur, egubakoitza, Labegarietara hurbilduko da urte-erdi zuzendutako Jolasleku ibiltaria, 17:00etatik 19:00etara, hain jardu-ere. Urriaren 11n, Poligonoan izango da, eta urriaren 25ean, berriz, Espolira.



Moiua dorrea Monumentu izendatu dute

Eusko Jaurlearitzak Moiua jauregia Monumentu izendatzeko espedientea Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea egokitze dekretua onartu du. Horrek Monumentu izendapena jaso duela esan nahi du. Moiua dorrea XVI. mendekoa da, baina gerora hainbat aldaketa izan ditu, eta elementu apaingarri gehienak XVIII. mendekoak dira.


L Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz

L Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**

L Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Abuztu kaskarra izan ondoren, ezin kexatu San Martin jaietako eguraldiarekin

MONIKA BELASTEGI

Joan zaizkigu San Martin jaiak. Ezin ukatu eguraldia lagungarri izan dugula egunotan; eta hori guztion aldarlean nabari den gauza da.

Zapatuan, goizean goizetik izan genuen eguzkia lagun, eta San Martin plazako barazki, fruta, lore eta gazta azokak zein Luma Gorri baserriko oilaskoen jaiak ikusle ugari izan zituzten. Baserriko oilaskoen jaiari dagokionez, Lasa jatetxeko Koldo Lasa Baserriko Oilaskoaren Lagun izendatu zuten.

Umeen eta nagusien danborradek ere ikusmin handia sor-

tu zuten, baita Euskadi Gaztea irratiko Joseina Etxeberria DJaren disko festak ere. Dena dela, badirudi baten batzuei ez zitzaie- la Etxeberriaren emanaldia askorik gustatu, arrautzak bota zizkioten-eta.

Horrez gain, jende ugari batu zuen beste ekitaldi bat ere izan zen domekan: arratsaldean, *Euskal Herria aurrera* lelopean egindako manifestazioa, hain justu ere; bostehun lagun inguruk hartu zuten parte ekitaldi horretan.

Herriko gaztetxean ere hainbat ekitaldi izan ziren, eta horiek ere jarri zuten gatza jaietan. Baita astelehen goizeko sokamuturrak ere.



AZOKAN, GIRO EZIN HOBEA Halaxe da. Zapatu goizeko azokan giro ezin hobea izan zen, eta eguraldiak ere izan zuen zerikusirik horretan. Ohi bezala, barazki, fruta, gazta eta lore moztuen lehia-keta izan zen, eta honako hauek izan ziren sail bakoitzeko irabazleak: barazkien sailean, Tomas Larrañaga Antzuolako Lapatza baserrikoa; frutaren atalean, Kontxita Izagirre, Antzuolako Bidaurre baserrikoa; gaztari dagokionez, Azpeitiko Belaustegi baserriko M^a Luisa Alberdik jaso zuen lehen saria; eta lore moztuen sailean, berriz, Uberako Begoña Arteagak.



Zapatu goizean, sekulako arrakasta izan zuten Luma Gorri elkarteko oilaskoek.



Domeka gauean, nagusien danborrada izan zen protagonista nagusia.




MAITE LAZKANO ETA AITZOL ENA Egubakoitzean Moises Azpiazuren oroimenez jokaturako Dantza Askatuko XVIII. Txapelketako irabazleak izan ziren Maite Lazkano eta Aitzol Ena, eta herriko bikote onenaren saria ere eskuratu zuten. Gipuzkoako 15 bikote aritu ziren lehian; horietatik hiru Bergarakoak.



KOFRADIAK PROTAGONISTA Domekan, Erreileno eta Tostoiako Kofradiak egun handia ospatu zuten; III. kapitulua, hain justu. Hainbat herritako kofradiak hurbildu ziren ekitaldirako, eta han ohorezko kofradiakide izendatu zituzten lau lagun: Lasa jatetxeko Juanita Lasa, Migel Okina margolaria, Serafin Esnaola abadea eta BKE.



Txikiak izan arren, danborra gogor astindu zuten gaztetxoek.



Domekan, jende ugari batu zuen Joseina Etxeberria DJak.



San Martin Egunean, ohiko emanaldia egin zuen bandak.

UBERAKO ESKOLAKOAK BASTIDAN

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Uberako eskolako Guraso Elkarateak irteera egin zuen joan den irailaren 7an, abuztuko oporretatik bueltan. Bigarren urtez Bastidara joan ziren uberarrak. Guztira, 35 lagun abiatu ziren autobusez Errioxara, eta gurasoek eta umeek egun ederra igaro zuten elkarrekin. Gabonetan kantuan jasotako diruarekin ordaindu zuten bidaia, eta eguraldia lagun zutela, Bastida eta hango inguruak ezagutu eta hango igerilekuan bainua hartzeko aukera ere izan zuten. Argazkian, irteeran parte hartu zuen koadrila, txakur eta guzti.



HERRI GUNEAN APARKALEKUAK MARKATZEN

Egunotan, Udal Brigadako langileak Ibargarai eta Irizar kaleetako aparkalekuak markatzen izan dira. Bi kale horiek asfaltatu zituzten aurreko astean, eta orain, gidariek ondo aparkatzeko marrak margotu dituzte. Ea errespetatzen ditugun. Argazkian ikusten den Irizar kaleko aldan 18 ibilgailurendako tokia dago.



Urriaren 1etik aurrera Disdiran
ORDUTEGI BERRIA:
Martitzenetik egubakoitzera 09:00etatik 16:00etara
Zapatuetan: 07:30etik 12:00etara

disdira
ileapaindegia

Masterreka 7. BERGARA. Tel. 943 76 00 55

ESPOLON SCHOOL OF ENGLISH ORAIN ANTZUOLAN

2002-2003 matrikula zabalik

- Klaseak goizez, eguerdiz eta arratsaldez
- Haurrak, gazteak eta helduak
- Azterketa ofizialetarako prestakuntza
- Enpresak: ingeles teknikoa eta komertziala
- Ordutegi bereziak: dendariek, erreleboak eta etxeoandreak



School of English

INFORMAZIOA:

943 76 03 53

BERGARA: Ibargarai 31, barruko plaza.
Asteleheneetik eguakitzera: 10:00-12:30 eta 16:30-19:30.
ANTZUOLA: Errekalde auzoko lokaletan.
Egutena eta egubakoitza: 16:30-19:00.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

BERGARARRAK MUNDUAN

AINHOA SANZ

27 URTE / PSIKOLOGOA / ALCALA DE HENARESEN

“Nire esparruan lan aukera handiagoa dagoelako etorri nintzen Madrilera”

EDU MENDIBIL

Donostian Psikologia ikasketak burutu ondoren, psikoanaliaren gaineko masterra egitera joan zen Ainhoa Madrilera, duela lau urte: “Masterra egin eta gero lanean hasi nintzen, eta, oraingoz, hemen jarraituko dut, nire esparruan lan aukera handiagoa dagoelako Madrilen Euskal Herrian baino”. Mutilarekin bizi da Ainhoa, Alcalá de Henaresen, Madrildik 30 bat kilometrora: “Lehenengo hiru urteak Madrilen eman genituen eta benetan hiri interesgarria da, sekulako eskaintza duelako. Hala ere, lasaitasun bila etorri ginen Alcalara, Madril eta era horretako hiriburu handiak nahiko estresagarriak gertatzen direlako. Alcalá oso ondo dago. Ikasle ugari bizi da hemen, unibertsitate asko daudelako. 200.000 biztanle inguru dauka eta oso hiri polita da”.

Goizez, kontsulta pribatu baten psikologo lanak egiten

ditu Ainhoak, eta arratsalde, Alcalako eskola publikoek ikastorduetatik kanpo eskaintzen dituzten jardueretako koordinatzailea da: “Lana gustukoa dut eta 13 ikastetxe publikoetako aisialdi eskaintza eramatea oso aberasgarria da. Denboraldi baterako


“Alcalá oso ondo dago eta ikasle ugari bizi da, unibertsitate asko daudelako”

hementxe jarraituko dugula uste dut”. Lau urte egin eta gero, lagun dezente egin dituzte Ainhoak eta mutilak: “Egia esateko, Madrilen nahiko zaila izaten da bertako jendea ezagutzea, eta Estatuko beste toki batzuetako jendearekin irteten gara nagusiki. Baten etxean biltzen gara askotan, afaldu eta lasai-lasai tertulian egoteko”.

Bergarara nahi baino gutxiago etortzen ei da: “Aste osoan lanean ibili eta gero, aste bukaeran atsedean hartzea gustatzen zaigu”. San Martinetan ere ez da etorri: “Mutilla Valladolideko da, eta han ere jaiak ziren aste bukaeran, San Mateoak, eta eskapatatxo bat egin genuen”.



MINGAINARITIRAKA



Pello Alarcos

SUPER BM DENDAKO ARDURADUNA

Pello Alarcosek (33 urte) martxua ezkereratik Oxirondo azokako Super BM dendan. Aurretik, 15 urtez jardun zeban tabernari. Ikaztegietakua jaiotzez, Tolosan bizi da.

Laneko gauzarik onena?

Jentiakin hartu-emonak eukitzia.

Eta txarrena?

Zapatuetan lan egin bihar izatia.

Lan gehien, noiz?

Egubakoitzetan, biharbada.

Eurotan ala pezetatan pentsatzen dozu?

Ondiokan pezetatan.

Etixerako erosketak zuk zeuk egiten dittuzu?

Ez, neskalagunak, gehixenetan.

Sukaldari ona zara?

Bai, edozeinen aurrian demostratu neke.

Janari bat eta edari bat?

Mixera eta txakoliña.

Denpora librian ze egiten dozu?

Mendiratu juatia. Astelehenean, Nafarruan izan nintzen, perretxikuak batzen.

Ze moduz abuztuko oporrak?

Ez neban oporrik izan. Urrirako lagatzen ditudut, ehiza denboraldirako.

Gustoko filme bat?

Aitarenekin.

Telebisiñoko programa bat?

Goenkale ikusten dot egunero, afalorduan. *Sorginen laratza* be gustatzen jat.

Musika talde bat?

Negu Gorriak.

Mania bat?

Burugogorra naizela esaten dabe, baiña ez dot uste.

Bestiengan gehixen apreziatzen dozu-na?

Egixakin juatia aurretik.

Amets bat?

Denpora libre luziagua eukitzia.

EDU MENDIBIL

NIRE BIDAIA HURA / Sonia De la Maza

Kanada / 2001eko abuztuaren

Kanadan osaba-izebak dauzkat, eta, haiei bisita egiteko aitzakiarekin, hara joan ginen senarra eta biok, aurreko udan, abuztuan. Lehenbiziko geldialdia Montrealen egin genuen, ekialdeko kostaldean, hain zuzen. Montrealgo eskualde frantsesa da, eta han geundela Jaialdi Frankofono bat ospatu zuten. Hori dela, giro aparta zegoen, musika emanaldiak eta era askotako postuak zeudelako kaleetan. Bost egun eman genituen Montrealen, eta jendearen izaera, paisaia eta kaleko giroa nabarmenduko nituzke. Handik Ottawara joan ginen, abioiez, distantziak oso luzeak direlako; izan ere, munduko herrialderik handienetako bat da Kanada. Ottawa dugu Kanadako hiriburua, baina, egia esateko, ez dago gauza askorik ikusteko, Kanadako Parlamentua izan ezik. Bi egun igaro genituen han, Winnipeg-era joan aurretik.




“Montrealgo Jaialdi Frankofonoan giro aparta zegoen”

“1.000 Lakuen eskualdean kanoan ibili ginen bost egunez”

Winnipeg, hain zuzen, gure senartekoekin elkartu ginen eta haiekin batera bost egunez kanoan ibili ginen, 1.000 Lakuen eskualdean. Inguruko uharteetan kanpatzen genuen, eta lau kanoatan 12 lagun ibili ginen, oso gustura. Txarrena gauean eltxoekin-eta nahikoa sufritu genuela, eta ezinezkoa zela dendatik kanpo lo egitea. Natura aldetik oso aberatsa da Kanada. Hartz bat ikusteko aukera ere izan genuen, errepidetik oso hurbil. Era berean, Winnipegetik nahiko gertu Grand Beach izeneko lakua dago, eta hori ere ikusteko da. Ikaragarria da, eta itsasoan zaudela ematen du, olaturik ez dagoen arren. Winnipeg eta ingurua nahiko ondo ezagutzeko aukera izan genuen 15 egunean, eta toki benetan politak ikusi genituen. Inguru hartan oso mendi gutxi dago, oso laua da, eta Rocosas mendate ezagunak mendebelean daude.

EDU MENDIBIL



Sonia, Ottawa hiriburuan ateratako argazki baten.

AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



IRAEGI
ASEGURUAK

PINTURA ETA MARRAZKIA
Mari Paz Alustiza

IRAILAREN 18AN
IKASTARO HASIERA

Izena emateko:
943 76 17 32
(arratsaldeko 07:00etatik aurrera)

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

FUTBOLA

Asier Garitanoren gol batek Espanyol taldea kanporatu zuen Kopa Txapelketan

Jokalari bergarra 2.B mailako Alacant taldean ari da hirugarren urtez. Aurreko denboraldian taldeko golegile nagusia izan zen

EDU MENDIBIL

Kopa Txapelketan sorpresa ugari izan dira lehen kanporaketan. Lehen mailako bost talde kanpoan geratu dira, tartean, Espanyol. Asier Garitano bergararrak sartutako gol bati esker Alacantek 'perikitoak' kanporatu zituen.

Joan den eguaztenean Alacanteko Rico Pérez futbol zelaian jokatutako partiduan Garitano 71. minutuan irten zen zelaira, Sendoa ordezkatuta. Eta partidua amaitzeko 13 minutu falta zirenean partiduko gol bakarra egin zuen aurrelari bergararrak; area barruan aldaratze bat jaso eta Argensóren atea zulatatu zuen. Ondorioz, Alacantek Juande Ramosen Espanyol taldea Kopatik kanpo laga zuen. Besteak beste, Maxi, Posse, Tamudo eta Milosevic ezagunek jokatu zuten Espanyolekin, baina uste baino lehenago agur esan zioten Kopari. Garitanok azaldu digunez, "Alacantek lehen mailako talde

baten aurka ofizialki jokatzen zuen lehen aldia zen, eta oso pozgarria izan da Espanyol gainditzea. Garaipenak oihartzun handia izan du komunikabideetan. Ea hurrengo kanporaketan ere lehen mailako beste talde baten aurka jokatzerik daukagun. Taldekide gehienek Real Madril hartu nahi dute, baina nik Athletic etortzea nahi nuke, Bilbon eman nituelako lehen urratsak futboleant".

2. A MAILARA IGOTZEA HELBURU

Alberto Argibai galiziarra da Alacanteko entrenatzailea eta, Garitanorekin batera, Alvaro, David Asensio, Sendoa eta Salcedo euskaldunak dira taldean. Orain dela lau urte taldea preferente mailan zegoen eta 2000-01 denboraldian 2. B mailara igo zen. Aurreko denboraldian 6. postuan sailkatu zen ligan: "Azken momentuan play-off-etik kanpo geratu ginen. Ea aurten 2. A mailara igotzeko ligaxkan sartzen garen".

Garitanok hirugarren denboraldia du Alacanten, eta oso gustura ari dela esan digu.



Asier Garitano Alacant taldeko golegile nagusia izan zen aurreko denboraldian, 14 golekin.


Bergara KEren liburua aurkeztuko dute domeka eguerdian udaletxean

E.M.

Bergara KEren historia batzen duen liburua aurkeztuko dute domekan, 12:30ean, udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan. Jarraian, 220 lagun inguru elkartuko dira Lasa jatetxean urrezko ezteiak ospatzeko izango den bazkarian.

Juan Luis Bikuña kazetariak idatzitako liburuan Bergara KEren historiari gainbegiratu egiten zaio, eta elkarteko sail guztien gaineko gorabeherak jasotzen dira. Liburuak 196 orrialde dauka eta 300 argazki inguru azaltzen dira bertan, hainbat garaitakoak. 50 urte hauetan Bergara KEtik igarotako guztiei omenaldi txiki bat egin nahi izan zaie liburuarekin, eta argazkiek berebiziko garrantzia daukate. Liburua 18 eurotan jarriko dute salgai eta CD-ROM formatuan ere eskuratzeko aukera izango da, 6 euroren truke. Liburuaren 2.000 ale kaleratuko dituzte eta herriko hainbat tokitan jarriko dute salgai. Era berean, domekatik irailaren 29ra arte urteurrenaren inguruko erakusketa izango da ikusgai udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan.

Domekako aurkezpenaren aurretik, 11:00etan, hildako baz-



Eskuman, Egaña jokalaria ohia, Bergara-Ilintxa partiduen atarian, 1961ean.

kideen eta jokalarien aldeko meza kantatua izango da Moja Klararren elizan. Alai Taldea Abesbatzak alaituko du elizkizuna. Domekako ospakizunei amaiera

emateko, 14:30ean, Bergara KEko jokalaria, entrenatzaile, zuzendari eta laguntzaileek bazkaria izango dute Lasa jatetxean. 220 lagun inguru izango dira.

Nazioarteko Xake Txapelketa eta herri krosa aste bukaeran

E.M.

Xake Taldeak antolatuta, Bergara Hiria Nazioarteko Txapelketa jokatuko da etzi, domeka, 10:00etan, Ipintza Institutuan. Hainbat herrialde-tako 100 bat jokalaria batuko dira txapelketan.

Besteak beste, Holanda, Estonia, Argentina, Georgia, Errusia, Peru edota Jugoslaviako xake jokalariak hartuko dute parte domekan jokatuko den Bergara Hiria Nazioarteko Txapelketan. Euskaldunei dagokienez, Felix Izeta zestoarra eta Mario Gómez Portugaletako jokalaria ditugu garaipena eskuratzeko faborito nagusiak. Biak ere Espainiako eta Euskadiko selekzioarekin aritu izan dira askotan eta eskarmendu handiko jokalaria dira. Bergarako Xake Taldeko Andres Diez, Martin Arriaran, Alex Muela eta Martin Muxika jokalaria ere taula aurrean izango ditugu domekan. Edurne Zabaleta Xake Taldeko ordezkararen esanetan, "Euskal Herrian egiten den txapelketa garrantzitsuenetakoa bat da Bergarako eta zaleek aukera paregabea izango dute maila handiko jokalaria bertatik bertara ikusteko". Zabaletak epaile lanak egingo ditu domekan. Txapelke-

ta sistema suitzarra jarraituta jokatuko da. Txapelduna nor den 19:00ak aldera jakingo da, antolatzaileen uste dutenez. Irabazleak 600 euro eskuratu ditu. Iaz, Georgiako Elisbar Ubilaba izan zen irabazlea. Annand indiar jokalaria ospetsuaren entrenatzailetako bat da Ubilaba eta domekan Bergaran izango da, ziurrenik, garaipena errepikatzeke asmoz.

Xakearekin jarraituz, bihar, zapatua, 20 urtetik beherakoei zuzendutako Bergara Hiria xake torneo irekia jokatuko da, 10:00etan, Ipintza Institutuan. Denetara, 120 jokalaria arituko dira lehiatzen, eta antolatzaileek nahi duten guztiei parte hartzeke dei egin nahi diete.

ZAPATUAN, HERRI KROSA

Zaleak Atletiko Taldeak antolatuta, bihar, zapatua, San Martin herri krosaren XIII. aldia jokatuko da, 17:00etan. Antolatzaileek sei kilometro inguruko ibilbidea prestatu dute herriko kaleetan barrena, eta, adinaren arabera, hainbat maila bereiztuko dituzte. Izenematea lasterke-ta hasi baino ordu erdi lehenago egin behar da, San Martin plazan. Ohikoa denez, probaren amaieran hainbat sari zozketatuko dituzte partaideen artean.

DUATLOIA

Aritz Kortabarria, bikain Munduko Duatloi Txapelketan, Suitzan

Antxintxika Debagoiena Taldeko triatleta hirugarren sailkatu zen 25 urtetik azpikoen mailan, Zofingen-en

EDU MENDIBIL

Aritz Kortabarria bergararra hirugarren postuan sailkatu zen irailaren 8an Zofingenen jokaturako distantzia luzeko Munduko Duatloi Txapelketan, 25 urtetik azpikoen mailan. 320 partaide izan ziren Suitzan jokaturako proban.

Partaideek 10 kilometro korrika, 160 bizikletan eta beste 30 kilometro korrika egin behar izan zituzten. Kortabarriak (24 urte) zortzi ordu eta 10 minutu behar izan zituen ibilbidea amaitzeko. 87. postuan iritsi zen helmugara eta 25 urtetik beherakoen artean hirugarren postua eskuratu zuen. Haren esanetan, "proba oso gogorra izan zen eta zelanbait bukatzea lortu nuen, zuluatu bat izan eta belauneko arazoak izan eta gero". Txirringularitza proban bederatzi mendate ziren tartean. Hala ere, bizikletan ondoen alda pan gora moldatzen dela dio.

Kortabarriak bi urte daramatza Antxintxika Debagoiena

Triatloi Taldean eta uztailean 28an Fos-en (Frantzia) jokaturako proban lortu zuen Suitzako Munduko Txapelketara joateko txartela. Aurtengo denboraldian 20 lasterketa inguru egin ditu, duatloiak eta triatloiak kontuan hartuz. Suitzan espero zuen baino hobeto ibili zela diosku: "Profesionalak ere tartean ziren eta niretako ezustekoa izan zen lortutako sailkapena. Egia esan, ez nuen pentsatzen horrela ibiltzerik". Abuztuan gogor entrenatu zen Suitzako probari begira. Egunero bizikleta eta antxintxika tarteatzen zituen, lau bat orduz.

TRITLOIETAN GUSTURAGO

Denboraldia amaitzear dagoela eta, orain, atsedean hartzeko gogo dauka. Martxotik irailera bitartean denboraldi luzea izan du. Azaro aldera hasiko da berriro entrenatzen. Datorren denboraldian, Austriako Iron-Man triatloi proba egitea gustatuko litzaioke: "Triatloia duatloi baino gehiago gustatzen zait, dibertigarriagoa delako".



Kortabarriak 20 bat duatloi eta triatloi egin ditu aurtengo denboraldian.

FUTBOLA

Lau partidu oraingo aste bukaeran Ipintzan

Oraingo aste bukaeran lau futbol partidu jokatu dituzte Ipintzan. Bihar, zapatua, Bergarako infantil taldeak Zumaiakoren aurka jokatu du, 10:30ean. Eta bigarren mailako kadete taldeak Aretxabaleta hartuko du, 11:45ean. Bihar arratsaldean, berriz, lehen mailako kadete taldeak Elgoibarren aurka neurtuko ditu indarrak, 16:00etan, eta, futbol jardunaldiarekin bukatzeko, Bergara eta Urki izango dira aurrez aurre, 17:30ean.

GIMNASIA

Ariznoa taldeak aurtengo denboraldi ekin dio

Ariznoa gimnasia taldean ari diren neskatilak hasi dira entrenatzen dagoeneko. Taldean parte hartzeko interesa duten 6 urtetik gorako neskek 943 76 56 75 (Jabi) telefonora dei dezakete, argibide eske. Martitzenetan, eguenetan eta egubakoitzetan izango dira entrenamenduak, 18:00etan.

Iñaki San José izango da Bergara Kirol Elkarteko presidentea

E.M.

Iñaki San Josék baietza eman dio Bergara KEko presidente kargua hartzeari. Futbol Saila egoera kezkarri zegoen uztailako batzar nagusian aurreko zuzendaritza taldeak dimisioa aurkeztu zuenetik.

Iñaki San José bigarren aldiz izango da Bergara KEko presidentea, 1986tik 1990era ere taldearen zuzendaritzan jardun zuen eta. San Josék Iñigo Zaitegi ordezkaturako du presidente karguan. Futbolearen eskarmentu handiko gizona da: Gipuzkoako Futbol Federazioan 13 urte daramatza, batzordekide postuan, hain zuzen. San Josék 44 urte dauzka eta ilusioarekin ekin dio etapa berri honi: "Pena ematen zidan elkarrekin horrela egotea, eta aurreko eguean kargua eskaini zidatenean baiezkoa ematea erabaki



Iñaki San Joséren zuzendaritzan 12 lagun izango dira.

nuen. Gauzak ondo egiteko gogo daukagu. Helburua preferente taldeak kategoriari eustea eta azpiko kategorietako taldeak ahal

den ondoen ibiltzea izango da". San Josérekin batera, 12 lagun izango dira zuzendaritzan, jokalarien gurasoak tartean.

FOTOKIROLA



San Martin sariaren 37. aldia domekan

Domekan, San Martin saria jokatu da, 10:00etan hasita. 100 bat txirringularik hartuko dute parte, tartean, Zigor Medina eta Jon Mendizabal bergarrek ere. Proba Lehendakari Txapelketarako puntuagarria da. Ibilbideak 108 kilometro izango ditu eta 12:45ak aldera bukatuko da, San Lorentzon. /E.M.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



BERGARAKO UDAL ARTXIBOA

Karlistadak, arrantza, merkataritza eta esklabutza dira hitzaldietan landuko dituzten gaietako batzuk.

Euskal Herriko historiaren gaineko hamar hitzaldi antolatu ditu Udal Agiritegiak

Bergara, Historia Topagunea hitzaldi sorta ekaina arte

MONIKA BELASTEGI

Udal Agiritegiak Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldi sorta antolatu du. Hamar hitzaldi izango dira guztira; eta gaiak, askotarikoak. Hilean behin izango dira hitzaldiok. Udal Agiritegiak herriko kultura eskaintza zabaldu nahi du ekimen horrekin.

Bergara, Historia Topagunea hitzaldi sorta antolatzeko orduan, herritarrei beste kultura ekitaldi bat eskaintzea izan dute abiapuntu Udal Agiritegiako arduradunek. Egitasmoa aurrera eramateko, Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena sinatu du Bergarako Udalak, eta, horren ondorioz, aholkularitza eta koordinazioa egin ditu Eusko Ikaskuntzako Historia Sailak.

Hamar hitzaldi izango dira, guztiak, Euskal Herriko historiaren gainekoak, eta historian adituek egingo dituzte. Hitzaldiok didaktikoak eta erakargarriak izatea da beste helburuetako bat, eta adin guztiei zuzenduta daude, gazteei zein nagusiei. Arantzazu Oregi Udal Agiritegiako arduradunaren esanetan, "Historia sakonago ezagutu eta ulertu nahi duenarentako dira hitzaldiok. Gure herrian behin eta berriz erabiltzen diren erreferentzia eta datu historikoak ulertzeko modu bat dira". Gainera,

hitzaldi bakoitzaren amaieran hizlari bakoitzak landutako gaiaren gaineko eskema, testuaren laburpena eta erreferentzia eta bibliografiak banatuko dituzte.

Hitzaldien gaiak askotarikoak izango diren arren, Udal Agiritegiak argi izan dute hamar gai horien artean Historia Garaikideko lau egotea. Oregik azaldu digunez, "Batxilergoan ari diren ikasleek Historia Garaikidea jorratzen dute eskolan, eta euren-gana heltzeko asmotan hartu dugu erabaki hori".

HILEKO LEHEN MARTITZENEAN

Hitzaldiok hilean behin izango dira, hileko lehen martitzenean, 19:30ean, Miguel Altuna Institutuko aretoan. Lehenengoa irailaren 24an izango da, eta Gabonak arteko beste hiru hitzaldi zehaztu dituzte, oraingoz.

Irailaren 24ko hitzaldia Jose Antonio Azpiatzuk egingo du, eta XVI eta XVII. mendeetan Bergaran zeuden merkataritza eta esklaboek jardungo du, Bergaran urrezko garai hartan zeuden esklabo beltzez, hain justu ere.

Lehenengo lau hitzaldiak

IRAILAREN 24AN, MARTITZENA

'Bergara Aro Modernoan: merkataritza eta esklaboak'
Hizlaria: Jose Antonio Azpiatzu

URRIAREN 1EAN, MARTITZENA

'Itsasoz handiko euskal arrantzaren abentura (XVI-XVIII. mendeetan)'
Hizlaria: Xabier Alberdi

AZAROAREN 5EAN, MARTITZENA

'Dios, Patria, Rey. Por una explicación foral de las guerras carlistas'
Hizlaria: Jose María Ortiz de Orruño

ABENDUAREN 3AN, MARTITZENA

'Euskal Herriko aduanetako sistema eta kontrabandoaren arazoa (XVII-XVIII. mendeetan)'
Hizlaria: Alberto Angulo

Rock taldeak arduratuta entsegurako lokalak direla-eta

MONIKA BELASTEGI

Lau rock talde entsegurako lokalik gabe geratu dira. Udal Igerilekuetan zuten egoitza, baina horiek itxi egin behar dituzte, lokala uzteko agindua jaso dute Udaletik. Taldeak kexu dira.

Ekain aldera jaso zuten lau taldeek Udal Igerilekuetako lokalak San Martin jaien ondoren uzteko jakinarazpena. Talde horietako bat Cool Panic da, eta Alex Muelak, taldeko kideetako batek, azaldu duenez, jakinarazpena jaso eta Udalera zuzendu zen. Udalean gaia aztertuko zutela adierazi zioten; hala ere, irtenbideak aurkitzen saiatu beharrean, oztopoak bakarrik jarri dizkiotela adierazi du Muelak. Udal arduradunek lokalik ez dagoela esan diote.

Hori dela eta, Arrizuri eta kultura etxearen gainean dau-

den proiektu berriak kontuan hartuta, bi horietako baten kokatzeko ideia bota zuen Muelak, baina haren esanetan, "egoitza horietan rock musikarako tokirik ez zegoela adierazi ziguten". Hori horrela, Goiko Estaziñoko lokala erabiltzea proposatu zien Udalari, baina han hainbat rock talde daude, eta dagoeneko ez dago tokirik.

INDARRAK BATUZ

Horren guztiaren aurrean, joan den astean, herriko hainbat taldeetako ordezkariak batzarra egin zuten. Muelaren esanetan, arazo bera dute guztiek, lokal falta, eta, seguruenik, taldea eratuko dute, Udaleko ordezkariekin jardun eta rock taldeen egoera erregulatzeko asmoz.

Gaur egun, hogeita hamar rock talde inguru daude herrian eta horietatik hamarren batek du Udalak utzitako entsegurako lokala.



ARTXIBOA

Made of stone diskoaren ondoren, bigarrena kaleratuko du laster Cool Panic-ek.

Arduradun berriak Moises Azpiazu dantza taldean

MONIKA BELASTEGI

Moises Azpiazu dantza taldeak arduradun berriak izango ditu aurrerantzean. Dani Azpiatzuk eta Noemi Larrañagak taldea utzi, eta Amaia Agirrek eta Maite Lazkanok hartu diete lekukoak.

Hogei urtez Moises Azpiazu dantza taldeko ardura izan ondoren, Dani Azpiatzuk eta Noemi Larrañagak taldea uztea erabaki dute. Arduradun ohien esanetan, "dantzarien zenbait guraso eta, zehazki, Guraso Elkarte batekin izandako tira-birek taldeko giroa garraztu egin dute. Hori horrela, gurasoen eta begiraleen arteko orekari eusteko energia handia gastatu dugula uste dugu, eta, ondorioz, ilusioa eta lanerako gogoia galdu egin ditugu". Hori da arduradun ohien esanetan dantza taldea lagatzeko arrazoia.

Hogei urteotako ibilbidearen begiratua egiteko orduan, oso emaitza positiboak izan dituztela adierazi dute Dani Azpiatzuk eta Noemi Larrañagak. Hasieratik helburu nagusi bat izan zuten, euskal folkloreaken barruan, bertakoak diren dantza eta erromeria bultzatzea eta suspertzea eta dagokien tokia ematea, eta, horretarako, ahalik eta neska-mutiko gehienei dantza irakasten saiatu direla gehitu dute.

AMAIA AGIRRE ETA MAITE LAZKANO, ARDURADUN BERRIAK

Arduradun berriak Amaia Agirre eta Maite Lazkano izango dira, biak ere, Moises Azpiazu dantza taldeko ikasle izandakoak eta hainbat sari eskuratutako dantzariak. Aurrerantzean, hor-taz, Agirrek eta Lazkanok izango dute, dantza taldean dauden lau bikoteak prestatzeaz gain, taldearen ardura ere.

GUREGAIK/ GAZTEENDAKO IKASTAROAK

Aula Gazteren hainbat ikastaro Bergaran

AINTZANE IRIZAR

Hamasei eta hogeita bederatzire urte bitarteko gazteei zuzenduta, hainbat ikastaro antolatatu ditu Kutzak, Aula Gazte programaren barruan. Bergaran ere izango dugu zer ikasi: makilajea, informatika...

Guztira, zazpi ikastaro antolatatu ditu Bergaran Aula Gazte: Photoshop, Dreamweaver eta Flash programen ikastaroak, yoga, sukaldaritza eta gozogintza, makilajea eta aretoko dantzak.


Ikastaro hauen gaineko informazioa eskuratu nahi izanez gero, Kutzako bulegoetan eskura dezakezue. Ikastaroetan izena emateko bi aukera dituzue: internet

bidez, www.begira.com web orrialdean; bestetik, telefono honetara deituta: 943 44 08 63.

Ikastaro hauetan parte hartzeko, 16 eta 29 urte bitartean izan behar dituzue eta Kutzako bezero izan, besteak beste.

IKASTAROEN DATAK

Yoga eta aretoko dantzen ikastaroak urrian hasi eta urtarrilean bukatuko dira. Makilaje ikastaroa, berriz, sei ordukoa izango da eta azaroan egingo dute. Sukaldaritza eta gozogintza ikastaroari dagokionez, urritik abendura arte izango da. Photoshop ikastaroa azaroan, Dreamweaver abenduan eta Flash programaren ikastaroa, azkenik, martxoan eta apirilean.



Zazpi ikastaro daude aukeran Bergaran, Aula Gazteren eskutik.

AULA GAZTE

LOTSABARIK/ Jon Iturbe

“Nahiko mutil formala naizela uste dut”

AINTZANE IRIZAR

Gurasoen esanak txintxo txintxo betetzen dituen horietako mutil formala ei da Jon. Ikasketetan ere ez du batere arazorik; beraz, pozik egongo dira gurasoak horrelako seme batekin.

• Txikitari, zer izan nahi zenuen?

Maisua; idaztea asko gustatzen zait; umeak eta umei gauzak irakastea ere asko gustatzen zait

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Espero dut maisu moduan lan egitea, txikitako nahia mantentzen dut.

Bergaran edo herri baten bizi nahiko nuke, neu bakarrik.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Gezurrik ez esateko eta euren gan konfidantza izateko.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat batere taktikarik; eurek esandako orduan etxeratzten naiz eta euren esanak betetzen saiatzen naiz; nahiko mutil formala naizela uste dut.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?

Osasunari, familiari eta lagunei.

• Zure bertute bat?

Eskuzabala naiz.

• Eta hutsune bat?

Arduratsuegia naiz; gauza guztiekin eta edozein gauza txikiarekin gehiegi arduratzen naiz.

• Zerk amorratzen zaitu?

Gezurrek, batez ere.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Fisikoari, orokorrean, eta batik bat, aurpegian.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez, naizen modukoa azaltzen naiz; gainera, nahiko lotsatia naiz.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Gauza horiek niretako gordetzen ditut.



ADINA: 16 urte • **IKASKETAK:** Batxillergoko lehen maila • **ZALETASUNAK:** Mendira joatea eta musika entzutea • **LIBURU BAT:** ‘No te laves las manos, Flanagan’, Andreu Martin-ena • **FILM BAT:** ‘Sé lo que hicisteis el último verano’ • **MUSIKA TALDEA:** Amaral • **KIROL TALDEA:** Reala

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate



PERU 2002

ZAHARREN ETXETIK

Hamabostaldi Kulturalerako Argazki Lehiaketa deitu du San Joxepe erretiratuen elkarteak

EDU MENDIBIL

Urriaren izango den Hamabostaldi Kulturalari begira, San Joxepe elkarteak Argazki Lehiaketa deitu du. Astelehenean, hilak 23, amaituko da lanak entregatzeko epea. Urriaren 8an hasiko den Hamabostaldian 'Osasun integrala' jorratuko dutenez, horixe da argazkizaleei agindu dieten gaia.

Lehiaketan zuri-beltzeko zein koloretako kategoriak bereiztuko dituzte eta teknika libre izango da. Esan bezala, *Osasun integrala* landu beharko dute argazkizaleek euren erretratuetan. Egile bakoitzak, gehienez, lau argazki aurkeztu ahal izango ditu kategoria bakoitzeko. Argazkien neurria egile bakoitzaren esku izango da, baina lan denak 30x40 cm-ko kartoi meheetan aurkeztuko beharko dira. Argazki bakoitzari titulua jarri behar zaio atzeko aldean eta beste gutun-azal baten, titulu bera azalean, eta egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta NAREN fotokopia) barruko aldean azaldu beharko dira. Lanak San Joxepeko egoitzan jasoko dira (Boni Laskurain 9).

Kategoria bakoitzean hiru sari banatuko dituzte, 120, 90 eta 60 eurokoak. Epaimahaiaren erabakia datorren egubakoitzean, hilak 27, jakinaraziko dute, eta Hamabostaldiaren barruan era-



Argazkizaleek 'Osasun integrala' gaia jorratu beharko dute San Joxepe deitutako lehiaketan.

kusketa egingo dute jasotako lanekin. Lehiaketaren inguruko argibideak 943 76 30 09 telefonoan jaso daitezke.

San Joxepe Bergarako eta inguruko herrietako argazkizaleei dei egiten die lehiaketan parte hartzeko. Erretiratuen helburua Hamabostaldia herri osora zabaltzea da, eta, hori dela eta, hainbat lehiaketa antolatu izan dituzte. Ikasleei zuzendutako lehiaketak ere izango dira.

KARTEL IRABAZLEA, URRIAREN 4AN

Bestalde, Kartel Lehiaketan partaidetza handia izan dela aurreratu digu San Joxepeko zuzendaritzak. Hala ere, kartel irabazlea zein den jakiteko urriaren 4ra arte itxaron beharko dugu, erabakia hartuta dagoen arren. Hain zuzen ere, egun horretan, lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa irekiko dute San Joxepeko egoitzan, urriaren 10era arte, eta orduan egingo dute sari

banaketa. Kartel irabazlea Hamabostaldia iragartzeko erabiliko dute. Irabazleak 600 euro jasoko ditu.

PASAI DONIBANERA IRTEERA

Datorren martitzenean, hilak 24, Pasai Donibanera irteera egingo dute erretiratuek. 08:30ean irten-go dira autobus geltokitik. San Markoseko gotorlekua ikustera joango dira, besteak beste, eta iluntze aldera itzuliko dira.

LABUR

Pintura eta eskulan erakusketarako deia

San Joxepe elkarteak dei egiten die Bergarako erretiratuei, urriaren 4an zabalduko den pintura eta eskulan erakusketan parte hartzeko. Erakusketa horretan San Joxepeko bazkideek zein bazkide ez direnek ere euren lanak jendaurrean erakusteko aukera izango dute. Hortaz, pintura, taila, zeramika, kakorraz edo gurutze-puntuko eskulanak onartuko dira. Erakusketa zabalik izango da urriaren 4tik 10era bitartean, Hamabostaldi Kulturalaren barruan. Helburua ahalik eta jende gehien parte hartzea da. Lanak urriaren 3rako San Joxepeko egoitzan egotea komeni da. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.

San Joxepeko informatika gela arratsalde zabalik

San Joxepeko zuzendaritzak jakitera eman duenez, erretiratuen egoitzako informatika gela astelehenean egubakoitzera izango da zabalik, 17:00etatik 19:00etara. Gehienez, 10 lagun egon ahal izango dira aldi berean aipatutako gelan, eta beharrezkoa izango da aurretik izena ematea. Aurreko ikasturtean bezala, aurten ere hainbat informatika ikastaro antolatuko dituzte San Joxepen.

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75



IRRINTZI

kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Pintura eta marrazki eskolak

Edure Eraña

Astegunetan eta zapatu goizetan

HASI GARA!

943 76 40 14



Matxiategi

Elektragintza S.L.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

EDEL

TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

BERGARAN
BULEGO BERRIA



INMOBILIARIA

BERGARA Ibarrai 3. 943 76 97 97
LEGAZPI Santikutz 8. 943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

Arotz lanetan behar duzun guztia



AZKARATE
AROTZEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19.

ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Komenio kaleko elkarte hau Bergarako zaharrena zen, 1999ko udaberrian atek itxi zituen arte. Zein zen 1922an sortutako elkarte horren izena?

PINTOREBERGARARRAKGAUR


Antonio Arrillaga

EDU MENDIBIL

Elgoibartarra sortzez, Antonio Arrillaga (1946) duela 30 urte etorri zen Bergarara bizi izatera. Kultur Ekintzak antolatutako ikastaro bati esker hasi zen margolaritzan, 80ko hamarkadaren inguruan, eta Luis Laskurain, Mari Paz Alustiza eta Jon Balentziaga izan ziren Antonioren lehenbiziko irakasleak: "Aspalditik neukan margotzen hasteko gogoia, gaztetatik, eta, arrantzarekin eta mendiarekin batera, margotzea nire zaletasun handiena bihurtu da". Bolun daukan estudioa egunero joaten ahalegintzen da: "Zale hutsa besterik ez naiz, eta margotzea etengabeko ikaste prozesua da. Nor bere buruarekin kritiko samarra izanez gero, hobetu nahian ibili behar da beti. Duela hiru urte, marrazten ikasten izan nintzen Bilbon eta Gasteizen".

Batez ere, paisaiak eta natura hilak egiten ditu eta pintore klasikoak eta inpresionistak dira Antonioren gustukoena. San Martinetako Pintura Lehiaketan 3. saria lortu zuen, eta herrian dagoen pintore kopurua kontuan hartuz, partaidetza handiagoa sumatu zuen faltan.

"Zalea naiz, eta margotzea etengabeko ikaste prozesua da niretako"



INAKI ITURBE

GALDEDEBALDE

1.

San Martinetako ferian, nork irabazi zuen gazta lehiaketako lehen saria?

- A/ Tomas Larrañagak.
- B/ Maria Luisa Alberdik.
- C/ Begoña Arteagak.

2.

Begarako Udal Agiritegiak hitzaldi sorta antolatu du. Nor da agiritegiko arduraduna?

- A/ Arantzazu Oregi.
- B/ Xabier Aranburu.
- C/ Alfonso Alonso.

3.

Iñaki San José BKEko presidentea karguan izan zen aurreko etapa baten. Noiz?

- A/ 1982tik 1985era.
- B/ 1998tik 2001era.
- C/ 1986tik 1990era.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

BERNA NUÑEZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Berna! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **San Martinen irudia Artzai Onaren katedralean dago** / Galde debalde: **1-C, 2-C, 3-C.**



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Gran Duque ardoa

Litroko brika

0,57 €

95 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**POL-POL
Taberna**

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**KONDE
PANADEROKUA**



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



ELGETA
Aitor Gorostiza
Irailaren 26an 7 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



ELGETA
Mikel Beretxinaga
Irailaren 22an 9 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



ELGETA
Ander Gorosabel
Irailaren 22an 9 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Nerea Najera
Irailaren 21ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Amaia Oregi
Irailaren 21ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Maider.



ABERGARA
Julen Etxabarri
Irailaren 20an urtebete.
Urte askotarako!
Ibon, Eider eta etxeokak.



ABERGARA
Sara Gonzalez
Irailaren 21ean 11 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



ABERGARA
Silvia Sebastian
Irailaren 22an 9 urte.
Zorionak! Gurasoak eta aitona-amonak.



BERGARA
Mikel San Torcuato
Irailaren 25ean 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Jabi.



BERGARA
Ainhoa Larrañaga
Irailaren 22an 28 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

Zorionak!


Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, Zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

GIARZU KIROL KLUBA Boni Laskurain 3, TEL.943763571

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
7,30	STEP IPURMASAILAK +	GIMNASIA MANTENTZEA+	AEROBIC IPURM.+ABDO+	GIMNASIA MANTENTZEA+	STEP ABDO+ESTIRAM
Monitore	Marisabel	Marisabel	Marisabel	Marisabel	Marisabel
8,15	STEP IPURMASAILAK	GIMNASIA MANTENTZEA+	AEROBIC IPURM.+ABDO+	GIMNASIA MANTENTZEA+	STEP ABDO+ESTIRA.
Monitore	Marisabel	Marisabel	Marisabel	Marisabel	Marisabel
9,00	AEROBIC IPURMASAILAK	GIMNASIA MANTENTZEA+	BODY-GIM LIF-TRAINING	GIMNASIA MANTENTZEA+	AEROBIC STEP ABDO.+ESTIRA.
10,00	ABDO.+ESTIRA. Gema	Luis	Luis- Gema	Luis	Gema
	AITONAK	SPINING INTENS.ERT	AITONAK	SPINING INTENS.ER T	AITONAK
Monitore	Amaia		Gema		Marisabel
15,00 (3)	STEP AEROBIC+	GIMNASIA MANTENTZEA	BODY-GIM LIF-TRAINING	GIMNASIA MANTENTZEA+	STEP AEROBIC+
	Gema	Luis	Gema	Luis	Gema
17,00 (5)	STEP AEROBIC+	PROGRAMATZEN	ZIRKUITO AEROBICO	PROGRAMATZEN	AEROBIC IPURMAS.ABDO.
	Gema		Gema		Gema
18,00 (6)	KARATE HAUR- GAZTE	ZIRKUITO AEROBICO	KARATE HAUR-GAZTE	STEP ABDO-IPURMAS	KARATE HAUR-GAZTE
	Luis - Gema	Gema	Luis - Gema	Gema	Luis - Gema
19,00 (7)	STEP IPURMASAILAK	SPINING (BIZI-INDOOR)	AEROBIC INDARTZEA++	SPINING (BIZI-INDOOR)	STEP IPURMAS.+ABD O
	ABDOMINALAK	Luis	Gema		Gema
20,00 (8,00) Zuz. Tek.		KARATE HELDUAK Luis-entrenatz. 3r Dan		KARATE ELDUAK Luis-entrenatz. 3r.Dan	
	STEP IPURMAS.+	21,00 (9,00) SPINING INTENS. ERTAINA	BODY-GIM LIF-TRAININ	21,00 (9,00) SPINING INTENTS.ERTAI N	STEP AEROBIC+ GERRI.-ABD.

MAKINA ETA PISU ARETOA: 07:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 22:00etara.
Astelehen, asteazken eta ostiralean ordutegi jarraia 07:00etatik 22:00etara.
JIU JITSU, BABES PERTSONALA: larunbatetan 10:00etan.




Euskara "txinoa" bada zuretzat

...eta euskara zeurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin,
txirrinduila, dulai...

UDAL
EUSKALTEGIAK

Ni txirrinduan
nabil.



- Eskaintza: Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak, EGA eta EGAtik gorakoa. Egokitutako taldeak: guraso, merkatar, enpresa... MULTIMEDIA gela.
- Erritmoak: Eskarien arabera. Galde ezazu!
- Bulego Ordutegia: 8:30 - 13:00 eta 14:30 - 18:30.
- Matrikulatzeko epea: Irailaren 2tik 20ra.
- 16 urtetik gorakoendako.
- Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi 13, BERGARA.
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

20 urte zuekin, egunez egun, euskaraz.

HABEren dirulaguntzaz

UDAL
EUSKALTEGIAK



Ariznoa gimnasia erritmiko taldea



Irailaren 17an gimnasia erritmikoko denboraldia hasi zen. Kirol polit honetan interesatuta dauden 6 urtetik gorako neskek, dei dezatela telefono hauetara informazioa jasotzeko: 943 76 56 75 (Jabi).

Klaseak BERGARAn: martitzen, eguen eta egubakoitzetan, 18:00etan.

Boni Laskurain pasealekuko Aranzadi ikastolako gimnasioan.

Klaseak ANTZUOLAn: martitzen, eguazten eta eguenetan, 18:00etan.

GIMNASIA



Aupa neskak, anima zaitetze! Zuen zain gaude!

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 20a / 126. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Gaztelugainek zapatuan ospatuko du hogeita bosgarren urteurrena

AINZANE IRIZAR

Hogeita bost urte dira Gaztelugain elkarteak inauguratu zutela. 1977ko martxoaren 19an, San Jose Egunean, hain zuzen ere, inauguratu zuten. Oraingo zapatuak, irailak 21, hainbat ekitaldi antolatu dituzte hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko.

Eguerdian hasiko dituzte ospakizunak Gaztelugainen: 12:00etan, salda eta txorizoa banatuko dute.

Diputazioko eta Aranzadiko arduradunak ere etorriko dira; izan ere, Gaztelugain tumulu baten gainean eraikita dago, eta hori seinaleztatzen duen plaka berria jarriko dute.

Bestalde, Toka Txapelketa antolatu dute. Gero, bazkaria izango dute, baita erromeria ere, Josu eta Jokin trikitilariekin. Azkenik, egun osoan, 25 urte hauek argazkien erakusketa egongo da ikusgai Gaztelugain elkartean bertan.



1977ko martxoaren 19an, San Jose Egunean, inauguratu zuten Gaztelugain elkartea.

AINZANE IRIZAR

ELKARTEAREN SORRERA

Paco Legorburu izan zen elkartaren sortzaileetako bat, eta hark kontatu dizkigu sorrerako hainbat kontu: garai hartan, hainbat elkarte egin zituzten Gorla inguruan; hori ikusita, Antzuolako

mendi aldean elkartea egitea pentsatu zuten, eta Trekutz ingurua aukeratu zuten horretarako. Hala, 25 bat lagun elkartu ziren eta proiektuari heldu zioten.

1972an hasi ziren batzen eta orduan eratu zuten lehen batzarrak, Jose Lizarralde presidente zela. Bost urte geroagora arte, baina, ez zuten inauguratu elkartea.

Ordurako, Paco Legorburu zen presidentea, Jose istripuan hil zen-eta. 50etik gora bazkide zituen ordurako elkartek. Gaur egun, berriz, 75 bazkide dira.

LABUR

Herri Ikastetxeko jantokia ez dute oraindik zabaldu

Irailaren 16an, joan den astelehenean, hasi zituzten eskolak, goizez eta arratsaldean, Herri Ikastetxeko neska-mutikoek; aurreko astean goizez bakarrik izan zituzten. Ordurako jantokia prest egongo zela iragarri genizuen aurreko asteko KONTUOLAn, baina oraindik ez dute zabaldu. Izan ere, jantokia egokitzea lanak bukatuta dauden arren, eskolan oraindik ez dituzte beharrezko altzari guztiak jaso. Baliteke datorren astean zabaldu ahal izatea, altzariak garaiz iristen badira.

Herriko pilota txapelketa urrian hasiko dute

Olalde elkarteak herriko pilota txapelketarako izena emateko deialdia egin du. 15 urteko gora zuzenduta dago txapelketa, eta eskuz binaka jokatuko dute. Irailaren 30a baino lehen eman behar da izena, eta 10 euro ordaindu; horretarako, Juan Tomas Erostege, Josu Zabalo, Juan Simon Aristi edo Balendin Zabalorengana jo dezakezue.

OSOKO BILKURA

Kortabarria eta Azkarate zinegotziek kargua laga dute

AINZANE IRIZAR

Irailako osoko bilkuran, hilaren 12an, euren kargua laga zuten Jon Kortabarria eta Juan Jose Azkarate *Errota* Antzuolako Udaleko zinegotziek. Biek ere arrazoi pertsonalengatik eta lan kontuengatik laga dutela zinegotzi kargua azaldu zioten udalbatzarrari, aurkeztu zituzten idatzien bitartez.

Euren taldeko zerrendan hurrengo hautagai zen Andoni Azkargortak ezetza eman dio kargua hartzeari, lan kontuak direla-eta.



Aitor Aranguren eta Jose Antonio Igartzak hartuko dute Jon Kortabarriak eta Juan Jose Azkaratek lagatako karguak.

Gauzak horrela, Aitor Aranguren eta Jose Antonio Igartzak izango ditugu hemendik aurrera Jon Kortabarriaren eta Juan Jose




Azkarateren tokia beteko duten zinegotziak.

Legealdi honetan ez dira izan kargua laga duten lehenengoak;



gogoratu behar dugu Jose Luis Kortabarriak ere laga zuela zinegotzi kargua eta Mikel Larrañaga dugula orain haren tokian.



ANBULATORIOKO ESKAILERAK EGITEN HASI DIRA

Aurreko asteko osoko bilkuran, bestalde, anbulatorioko eskailerak egiteko lanak esleitu zituen udalbatzarrak. Oraingo astean bertan hasi dira dagoeneko lan horiek egiten, eta laster izango dugu osasun etxerako sarrera berria.

Bestalde, aurtengo aurrekontuetan aurreikusten zuten beste lan bat anbulatorioarako igogailua egitea zen; lan horiek lehiaketara ateratzea ere erabaki zuten udalbatzarrak joan den egueneko osoko bilkuran.

IKASTAROAK

Pintura eta yoga ikastaroak urritik

AINTZANE IRIZAR

Urtero moduan, Pintura ikastaroa antolatu du Udalak. Ikasturte osokoa izango da ikastaro hori. Bestalde, azkeneko urteotan izan ez dugun beste ikastaro bat ere antolatu du ikasturte berrirako Udalak, Yoga ikastaroa, hain zuzen ere, urrian hasi eta abendura arte.

Urriaren 9an, eguaztena, hasiko dute Pintura ikastaroa, eta ikasturte osokoa izango da, esan bezala. Errekaldeko lokalean izango dituzte eskolak, 18:30etik 20:30era.

Ikastaro horretan parte hartu nahi dutenek urriaren 4a baino lehen eman beharko dute izena, eta 65 euro ordaindu beharko dituzte matrikulagatik.

Bestalde, yoga ikastaroa ere antolatu du Udalak ikasturte berrirako. Olanan etxean izango da hori eta Jose Luis Armendia mondragoetarrak emango du. Egubakoitzero izango dira yoga saioak, 19:00etatik 20:30era.

Urriaren 11n hasiko da ikastaro hori eta abendura artekoa izango da. Hasierako ikastaro

horrekin, baina, talde finkoa osatzea da Udalaren helburua, eta ikastaroa ikasturte osora luzatzea. Urriaren 4ra arte dago izena emateko aukera, eta 15 euro ordaindu behar da matrikula.

GIMNASIA ERRITMIKO TALDEA

Dagoeneko hasi dute Ariznoa gimnasia erritmiko taldekoek aurtengo denboraldia; irailaren 17an, hain zuzen ere, hasi zituzten entrenamenduak. Oraindik, baina, kirol horretan hasi nahi duten sei urtetik gorako neskek badute izena emateko aukera, honako telefono zenbakira deituta: 943 76 56 75. Gimnasia saioak martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan izaten dira, arratsaldeko seietatik aurrera.

Urriaren 4ra arte dago zabalik pintura eta yoga ikastaroetan izena emateko epea



Lapatza eta Bidaurre sarituak

Bergarako San Martin jaietako azokan, joan den zapatuan, lehen saria eskuratu zuten Antzuolako baserritarrek. Barazkien sailean Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañaga eta Maria Jesus Gorritxok irabazi zuten lehen saria. Bidaurre baserriko Kontxi Izagirrek, berriz, fruten sailean irabazi zuen lehen saria. Pozik azaldu ziren bai Lapatzakoak baita Bidaurrekoak ere, lehen saria irabazteaz gainera, salmenta oso onak izan ei zituztelako. /A.I.

LABUR

Azoka frontoi aurrean, gaurtik, egubakoitza

Gaur, egubakoitza, hastekoak ziren azoka frontoi aurreko aldean egiten. Duela pare bat aste ere horixe bera iragarri genizuen, baina atzeratu egin zuten toki aldaketa hori. Orain, behin saltzaileen kokapena zehaztuta, prest dute guztia azoka tokiz aldatzeko. Kokapena zehazteko orduan, bertako ekoizleei eman nahi izan diete lehentasuna Udalako arduradunek.

Gauzak horrela, hainbat saltzailek behin eta berriro aurkeztutako kexei erantzuna eman die Udalak toki aldaketa horrekin.

Testamentuen eta herentzien gaineko hitzaldia Olananen

Datorren asteko eguenean, irailaren 26an, *Oinordekotzak, testamentuak eta herentziak* izenburupean, hitzaldia egingo du Alejandra Murua adituak, Olanan etxean, arratsaldeko seietatik aurrera. Testamentuen eta herentzien gainean jakin beharreko guztia azalduko digu Alejandra Muruak.

Kutxa Aulak antolatutako hitzaldia da, eta nahi duen guztiari zuzenduta dago. Sarrera doan izango da.

Asteburuan hasiko dute futbol denboraldia

Oraingo asteburuan hasiko dute denboraldia Antzuolako bi futbol taldeek. Erregionalekoek etxean jokatuko dute denboraldiko aurreneko partidua, Ikasberriren aurka. Bihar, zapatua, izango da hori, arratsaldeko bostetan.


Gazteen taldeak domekan hasiko du denboraldi berria, Ondarroako taldearen aurka, bizkaitarren zelaian. Goizeko hamaika eta erdietan izango dute partidua.

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer pentsatzen jatzu azokia tokiz aldatzia?



AMAIA TOLEDO
35 urte

Saltzailliendako hobia bada frontoi aurrekaldia, ondo pentsatzen jat, baiña Zurrategi toki zabalaguna eta jentandako hobia dala uste dot.



EUGENIO PECO
70 urte

Zurrategi toki hobia dala pentsatzen jat, erosliendako askoz toki erosuaguna da; frontoi aldera juteko aldapia dago, eta, gainera, toki estuaguna da.



LOLI ALBERDI
50 urte

Neri pentsatzen jat toki okerraguna dala frontoi aurrekaldekua erosliendako; Zurrategi askoz toki zabalaguna eta erosuaguna da.



ANGELITA ENA
58 urte


Nik neuk nahixago neban Zurrategin, neuri gertuago gelditzen jatelako, baiña frontoi aurrekaldian egittia be ondo ikusten dot.



XABIER ALZELAI
31 urte

Berez azokia egitteko toki hobia dala uste dot Zurrategikua, baiña saltzailliendako egokixaguna bada frontoi aurria, ondo pentsatzen jat.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak
Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.
Tf. 943 76 60 89

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LEKV-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

Juan Cruz
ARGAZKIAK
EOS 3000
28-80 zooma

OPARIA Uztailean, abuztuan eta irailean errebelatutako erroiloen artean zozketatuko da
Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko irailaren 20a / 110. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Eskolako jantokia noiz zabalduko duten zain daude 28 eskola-ume


OXEL EROSTARBE

Ez Irakaskuntza batzordeak, ez Guraso Elkarreak ezta Eskolako zuzendaritzak ez dakite jantokia noiz zabalduko den. Astearen hasieran zenbait altzari ekarri arren, gauza asko geratzen dira oraindik ekartzeko. Elgetakoa bezala daude inguruko beste zazpi eskola.

Badirudi jantokian bazkaltzeko izena emana duten 28 neska-mutikoei beste astebete itxaron behariko dutela, gutxienez. Izan ere, ikasturtea duela bi aste hasi zen arren, Ordezkaritzak ez ditu jantokia egokitzeko behar diren altzari, elektragailu eta beste hainbat tresna Eskolara ekarri.

Elgetako Eskolakoa, ordea, ez da guztiz egokitu barik dagoela eta zabaldu ez duten jantoki bakarra. Badirudi inguruko herrietan beste zazpi edo zortzi eskola arazo berarekin dabilzala. Horieta-ko bat Antzuolako Eskola dugu.

GOIBEKOKALE, Isabel Richardekin (Guraso Elkarreko presidentea), Izaskun Larrearekin (Irakaskuntzako zinegotzia) eta Maite Arantzabalekin (Eskolako zuzendaria) egon da gai



Argazkian ikus dezakegu Eskolako jantokia zelan dagoen; altzariak falta dira eta paretak ez daude margotuta.

horren gainean duten iritzia jakiteko. Guztien erantzuna bera izan da: Ordezkaritzak ikasturte hasieran jantokia gertu egongo zela esan zuela, eta jantokia egoki-

tzeko zain daudela jantoki zerbitzua martxan jartzeko. Ordezkaritzatik eskolako arduradunei esan dietenez, datorren astean bertan, edo, beranduenez, hil

bukaerarako jantokia guztiz egokituta egongo da. Espero dezagun lehenbailehen arazoa konpontzea, 28 eskola-ume jantokia martxan jartzeko zain daude-eta.



Gimnasia egiteko izenematea zabalik

Kirol Zerbitzuek antolatutako gimnasia eskaintzan parte hartu nahi dutenek irailaren 26a baino lehen eman behar dute izena. Sasoiaren egoteko gimnasia martitzenetan eta eguenetan izango da, 19:00etatik 20:00etara, eta izenematea 9 euro izango da. Hirugarren adinekoendako gimnasia ere egun berberetan izango da, 16:30etik 17:30era, eta izenematea 5 euro izango da. /O.E.

JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

Tortillia kipuliakin

Patata-tortilla lehiaketia irabazi dabenei, sarrittan entzun izan dotset patatak, arrautzak, gatza eta olixua nahikua dirala bihar dan moduko patata-tortillia egiteko. Ez dot nik ezetzik esango, ikasixak eurak dira eta. Nik nahixau dot kipuliakin.

Sagardo Egunian zeren pankartei be falta jakuen kipulia. Antolatzailliek lan asko eukitzen debe eta ezin denborarik hartu siñatzeko. Euren pankartak zirala siñistu nahi dot.

Kultura Batzordia hasarre samar euko dabe. Eguna egitten materialakin eta diruakin lagundu, eta egitarauko kartelien euren kipulia faltan. Poztekua da, gaztiak lehengo bidetik jarraitzen debela ikustia. Nahitta egin izan balebe...

Tanketetako ura protagonista izan dan asteburuko biharamunian, eskolara hurreratu nintzan, jantokiko menuan kipuladun ala kipula bako tortillia zeuan jakin nahixan. Ez kipularik eta ez tortillarik, umiak be faltan. Martitzenian altzairu uhartu eziñeko altzarixak heldu ziran, eguaztenian mikro uhin haundi bat. Gaiñontze-kuak noiz helduko diran batek daki. Eibarren ei dare norbaittek banatu zain. Ezin konfirmatu, Ordezkaritza komunikatzen dago. Betiko moduan.

LABUR

Abade berria datorrela eta, meza berezia domekan


Elgetak abadea izango du berriro ere. Juan Kruz Juaristi du izena eta zarauztarra da jaiotzez. 40 urte baino gehiagoz Ruandan jardun du, eta Elgetan izango dugu aurreantzean. Bergaran biziko den arren, seguruenik meza esango du Elgetan egunero.

Domekan, irteera eta sarrera meza izango da, 12:00etan. Meza gotzain-bikarioak emango du. Hantxe izango dira orain arte meza esan duten Eibarko abadeak, baita abade berria ere.

Tortillak egitten iñoiz baiño talde gutxiago izan arren, giro aparta Sagardo Egunian



Tortillerak taldekuak mozorrotuta agertu ziran sukaldari lanak egittera.



Goibeko Kultura Elkartekuk seigarren postua lortu zeben Tortilla Lehiaketan.



Asun, Alex eta Jon, tortilla onena zein zan aukeratzeko lanetan.

O.E.

Gaztetxiak antolatuta eta Intxorta Elkartiak lagunduta, Sagardo Eguna izan zan zapatuan. Urtero moduan, egualdi onak ez zeban hutsik egin. Horren eragiñez, plazan eta herriko kalietan ipiñitako sagardo-kupel danak hutsik zeren illundu orduko.

Arratsaldeko seiretan Tortilla Lehiaketia hasi zan. Aurtenguan, iñoiz baiño sukaldari gutxiago batu zan plazara. Agertu ziranak kanpai hotsakin batera hasi zotsen patatak moztu eta gaiñontzekuak egittiari. Tortillaren bat erreta eta batzuen tortillia airetik ikusteko aukeria be izan giñuan. Ordubetian tortilla danak gertu zeren.

Orduan agertu ziran plazara Asun Arruabarrena, Alex Arantxabal eta Jon Apaolaza, lehiaketan epaile lanak egin dabenak. Esan doskuenez, tortilla guztien artian bat beste danak baiño nabarmen hobia zeguan. Zein izango irabazlia eta, aurtenguan be, GGGko neskak izan ziran onenak. Tortilla originalenari sarixa be eurek irabazi zeben. Hamalau urtetik beherekuetan Pataterak izan ziran aurrenak. Azkenengo, Txapela, piparra biharrian piparmina botata.

Afarixaren ostian goizaldera arte luzatu zan jaixa gaztetxian. Giro aparta izan zan.



Sagardotegi askotako sagardua edateko aukeria euki giñuan zapatuan.



Aurtenguan be GGG taldekuak izan ziran Tortilla Lehiaketako irabazliak.

Sailkapena

1. GGG
2. Morales eta Segundo
3. Pataterak
4. Intxorta Elkartea
5. Goibeko Kultura Elkartea
6. Guraso Elkartea
7. Egingo jonau
8. Bixok
9. 90.210
10. SOS Iarrialdiak
11. EAJ
12. Tortillerak
13. Gaztetxia
14. Txapela

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale

BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak,
ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artetale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

Arantzeta eta
Goiuria, Deba
arroko onenak

Duela urte asko ez dirala, elgetarrok gure herriko kirolarixak herriz herri jarraitzen genittuan. Hemen astian ekarri dogun erretratu horren adibide garbixa da.

Hori partiduori oin dala 36 urte jokatu zan, Plaentxin. Partido garrantzitsua zan, Deba Arroko Txapelketian. finala zan-eta. Arantzetak eta Goiuriak Zelaiaren eta Agirianoren aurka jokatu zeben hori finalori. Juan Mari Arantzetak 18 urte zittuan hemen urtian. Elgetarrak eta berriztarrak partidua irabazi, eta Deba Arroko txapelketia irabazi zeben.

Elgetar ugari juan ziran finala ikustera. Jarraixan dittuzue erretratu agertzen diranak.

Goiko illaran, ezkerretik eskumara: Jose Antonio Mendikute, Jose Mari Gorrotxategi, Migel Sarasua, Goiuria, Anastasio Arantzeta, Juan Mari Arantzeta, Juan Jose Arantzeta, Sabino Gallastegi, Kandido Bolinaga eta Jabier Arantzeta.

Makurtuta, ezkerretik eskumara:



Tomas Arizmendi, Fernando Arantzeta, Jose Arantzabal, Roman Alberdi, Antonio Iturrigaztelu, Felix Irazabal, Santi Arantzabal, Alejandro Arantzetak, Jabier Elorriaga eta Jose Antonio Gorrotxategi.

Argazkia: Nati Arrieta

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituz!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Elgetatik
Arrasatera
juateko bidia

Urriak juan urriak etorri, gure herrixa aldatzen doa. Gaurkuan ekarri dotsuegun erretratuan argi ikusi geinke hori. Lehenaguko erretratuan ez da argindarreko posterik ikusten, piñuak be gutxi eta herriko etxe gehixenak bi pisukuak dira. Hori erretratuori gerra aurrekoa da. Elizako kanpandorreko erlojua eskumako aldi egotiak argi erakusten dau hori.



≈ 1930

Argazkixan ikusi geinken bidetik igotzen zan lehenago Asentzio aldera. Erretratuan, idi paria ikusi geinke zoruan goldia pasatzen.



2002

Arrasatera juateko bidia ezkererago egin zeben, eta hori bidiori Intxorta azpiko basarrixetara igotzeko erabiltzen dabe. Parajia asko aldatu da.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Artzamendi 2,
5-D
943 76 53 82

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA

ITURGINTZA



Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak



Manufacturas
AFA-BI, S.L.

S. Lorentzo z/g
943 76 50 92
943 76 21 59
F 943 76 02 65

- PVC
- Aluminioa
- Veka sistema




IRAMA

ELEKTRIZITATEA

619 692 336
943 78 90 57
943 76 80 25

- Antena instalazioak
- Mantentze lanak
- GOITB ikusteko beharrezko guztia



EGUREN INTURAK

Irala kalea z/g
943 76 33 01
F 943 76 33 01

- Orotariko pintaketa lanak



Turkintz Berri S.L.

Amillaga 1
943 76 28 04
F 943 76 36 58

- Bainurako altzariak
- Era guztietako kalefakzio instalakuntzak

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Loidi baseria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

Antonio Bouzas

Zurradero 8, 1-A
943 76 06 12
689 805 802

- Margoak eta dekorazioa



MATXIATEGI S.L.

ELEKTRAGINTZA

Zurradero 8
943 76 19 94

- Material eta etxeko tresna elektrikoak
- Instalazioak
- Hari musikala

Andres margoak


Zubiaurre 19
Ozaeta 9
669 887 814
669 887 815

- Pintura dekoratiboa

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria




Fontaneria Larrañaga, s.l.

Matxiategi 16
943 76 29 97
F 943 76 04 22

- Diba: bainuaren diseinu osoa
- Gas instalazioa
- Berogailuak

UGARTE

ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04


- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



UR kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikokoak



El izarra elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

Orain Opel-en,
BEZa ez da seriekoa.

**- %16^{KO}
%0 BEZ**

Corsa Diesel /Astra Diesel



Orain OPEL kontzesionariotan nahi duzun Corsa Diesel edo Astra Diesela erosterakoan, BEZaren parekoa den deskontua duzu.

Oraintxe etorri zure OPEL kontzesionariora.

Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Eskaintza hau 2002ko urriaren 31 arte luzatuko da stockean dauden Corsa diesel eta Astra diesel automobiletan, Caravan, Coupé eta Cabrio modeloak izan ezik. Promozio honen deskontua, automobilaren prezioa gehi fabrikaren erantsitako aukera librearen prezioekin kalkulatu da (bi kasuetan zerga eta garrariorik gabe). Informazio gehiago, zure OPEL kontzesionarioan.

Giauto

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/46. BERGARA